

Arantzazu

TXILLARDEGI



NI ere Arantzazu izan nintzen, erromes.

Elurra izan omen zuten bezperan. Termometroek 4 grado markatzen zuten. Eta behelainoa hantxe zegoen, nagi: Aitzabal. Beillotza eta Erbizkun ozia-ozia ageri zirelarik.

Zapirehuan lagun ari ziren gose-greban. Eskaileretan eta ikastetxearen inguruetan, dozenaka grebalarai, izoztuta itxuraz (ni neu ere, azaldu berri hartan ere, ordurako hormatuta). Eta nor bere ur-botila eskutan, hona eta hara.

Aurpegi ezagunak han eta hemen. Mintzagaia, gose-grebean normala izalzen denez, jana-riak: «hemendik iritean, kokotzak jango dizkiat... hau bukatzean, sekulako arkumea jan nahi nitek... nik ez: nik legatza saltsan nahiago...». Arrangura batzu ere bati: «media» delakoek isilatasuneko boikota egin omen dietela, Euskal Herrikoek barne.

Harrigarria. Zeren-eta gose-greba baino ekintza baketsuagorik ez baitago. Eta presoak bisitaztea (eta laguntzea, hortiaz) betekizun ebanjeliko nagusien artean baitago. Nik uste. Hala ere, ixo! Boikota jendilleja horri!

Asanblada zegoela, eta hara joan naiz. Aretoa beteta mukurru. Joan Mari Olano eta Gari Arriaga aberkideak, ahal bezala saiatzen ziren elkarriketa hurra bideratzen.

Nahiz tarteka hizun batek edo beste erdaraz egin, batzarrea euskaraz mamitzen ari zen. Honetek, besterik gabe, eta instituzio autonomikoen erdalkeria negargarri eta amaigabea ezagutzarik, gure «media» horien etorrera merezi zuen, ene ustez.

... Hain zuzen ere, aste honetantxe izan nintzen ni Miramon-ko estudioetan orain dela zenbait urte, eta «las chicas de Moreno» topatu nituen han, sevililnaz jantzita. Españoladak emateko ez baitago EITB-an inolako boikotik...

Arantzazun, berriro ere, orrialde eder bat idatzi da Eguberri honetan. Eta (gure asabek bezala esanez) ustelei «gaitzi bazaie» ere, hotzez eta ezintasunaz oratua, gose-greba harrigarri hori gure herriaren kondairan urrezko letraz izkiriturik gelditu da.

Lerro hauen bidez, horregatik, neure diosala helerazi nahi nieke grebalariei. Baina baita, bidenabar, urte luzetan barrena, apurka-apurka iraugitzen ari diren gudariel ere.

Jaio da

INAKI SEGUROLA



JOAN den Gabon gauean jaio da berriro ere mundura Joxe arotza eta Miren Gartiñeren seme bakarra: eta Hitz haragi egin zen, eta gure artean bizi izan zen». Misterioa latza baita idatzia zegoena.

Zerutik izar batek argi eginik, berehalaxe heldu dira haur ederraren bila zoriatzen zebiltzan artzaintzok, erregeak, kazetariak eta psikologoak. Jostailu hezitzailez, bideojokoz eta bes-telako litxarrieriaz bete dute estalpe xarra, eta hortasuntxo, izena eta izana ere eman dizkiote. Hitz la letra bihurtu da. Idatzirik zegoen.

Handik astebertera beldurgarriko burrundarak gortu dizkio belarriak. Autoak eta telebistak croturik ibili dira gauerdiaroz gerotz hamabimilatan hamabimila kolpe huts emanaz: denbora ba omen doala aurrera eta gizonek heriotzera. Lau arrazoi jarri dizkiote bi begien aurrean: 1994. Hitz la numero egin da; halaxe zegoen idatzia.

Hurrena berriz, Saltoki Handietara. Ikarak hartu du ikustean diruaren fedez itsututako kristau mordoa eskailera mekanikoetan gora eta behera. «Ez dakite zer ari diren», egin du bere artean.

Aingeru arimaxarturen batek ahapeka adierazirik, den-dena idatzia zegoela jabetu da azkenik, non eta bertako ordenadorearen bihoztan. Burutik oinetaraino azortatua, herio batean jo du Saltoki Handietako ExeFutibo Gorenaren bulegora. Bere tronuan harapatu, eta nahigabeturik bota dio: «Aita, zergatik abandonatu nauzu?» Dena dakienak erantzunguz: «Lau hitz eta laurak huts: ez da bosgarrenik izan. Mututu dute Hitz la beste urtebeterako: leiraz, numeroz eta diruz.

Idatzia dago: oneoro idazten da mundu honetara hitzarekin eta arrazoiarekin jaiotzen den haur ororen haragian.

● egin

Zerbait mugitzen ari da Ertzaintzan

Ertzaintzako hainbat sindikatu berriki agente autonomiko guztiei zuzendutako ETAREN eskutitz bat jaso dute.

Eskutitzak, hartzaileek epaitegian horren aurkako salaketa egitea eragin duenak, badirudi, era berean, egonezin handia sortu duela Ertzaintzako kideen artean. Egonezin hori era desberdinetan agertu da eta agerian utzi du gorputz polizialean batera hainbat sentibilitate desberdin daukela instituzioek Ertzaintzari ezarri dioten betekizunari buruz. Zentzu honetan argigarria da oso habituak jatzeko bezperan dagoen nobizita urduri baten lastertasunarekin, Barne Sailak atzo, eskutitzaren edukia ezagutu ondoren, lerroak itxteko dei nahasi bat zabaltzea, horretan inolako arrazoirik gabe «Egin» nahastuz.


EDITORIALA

● EL PAIS

Gaixoa, ez biktima

Banestoren krisiaz atzo Parلمانentuan egingandako saioak Espainiako Bankuaren eskuhartzea —zein taldek aurka egin ez zio-

H EMEROTEKA



MANU/DEIA

na— beharrezkoa zela egiaztatu zuen eta, era berean, agerian utzi zioten entitatearen buruan Mario Condek egingandako gestioaren oso hutsegite larriak.

Dagoeneko hainbat gauza geratu dira argi: gaixotasuna (Banestorena) larria dela eta kutsatzea orain dela gutxi antzeman zutela. Ezin zaio inolako bainarik jarri medikuaran (Espainiako Bankua) zuhurtasunari, denek onartu duten gauza baita, nahiz eta oraindik ez den gutzit argitu beharrezko lastertasunaz esku hartu zuenentz.

Metaforarik gabe: Espainiako Bankuaren gobernadoreak atzo eskainitako datuek Banestoren desoreka oso larria zela baieztatu dute, zuzkidura eta saneamendua beharrezko 500.000 milioi pezetara iritsi ziren eta. Zifra horrek, berez, ezinbesteko bihurtzen zuen berehala esku hartzea, kopurua bi herenak utzi bakar batean

agertu baitziren. PPko bozemaileak berak azpimarratu zuen hori. «Espainiako Bankuak esku hartzea beste biderik ez zegoela» adierazitakoan.

Entitate batek arazoak ditueanean errua beti besteena —ego-ra ekonomiko, interes tasak, etsai politikoak, hedabideak edota aurora boreala— dela eta ez dela inoiz kudeatzaileena dioten teoria gezurrezkoa bezain barre-garria da. Entitate baten borroka izatetik aspikero unibertsal baten borroka izatera pasatzeak Ruiz-Mateos konplexu patetikora eraman ohi du. Pentatzekoa da Banestoko lehendakari ohia izan arren oraindik ere eskuhartzea jasan duen bankuaren akzio-dunen indibidual garrantzitsuen izatzen jarraitzen duen Mario Conderen intelgentzia eta konterbazio senak hutsegite hori ez egitea aholkatuko diotela, bere hagiografo batzuk hortara bultzatzen

asko saiatuagatik ere. Gainera, atzoko saioan beste gauza erabakigarri bat gelditu zen egiaztatuta, hain zuzen esku hartutako bankuan azken urteotan egingandako gestioa katastrofiko izan dela. 1989. urtean, Banesto funtsean saneatuta zegoen esan zuen gobernadoreak. Zuloa lau urtean sortu dela esan nahi du horrek.

Kredituen hedatze azkar eta zoroak (konpentzitatek bere inbertsioaren kalitatea kontu handiz neurtzen zuten bitartean), arriskuaren kontzentrazioa, kreditu berankor eta zalantza-oso oso ehuneko altua, arrisku handikoak eta errentagarritasun gutxiak diren sektoreetan egingandako inbertsioa, ustiapen gastuen emendatzea (goi mailako pertsonalean, irudian eta informatikan) dira, besteak beste, katastrofe eragin duten arrazoietako batzuk.

EDITORIALA

ZUZENDARIARI

Ehizaren ondorio ekologikoak

Azken urteotan, ehiztari-multzoren ezaugarri amankomun bat bere burua ekologiztatut jotzea izan da, horretarako aurrera eramaten diuzten birpopulaketa zinegetikoen argudioa erabiliz, bestean artean. Gure usteetan zentzu gabe justifikazioak besterik ez da hau. Ildo honetatik doazte Xabier Zelaiek, Berako Ehiza eta Arantza Elkarteak kideak, EKUNGARIARI buruturiko aitopenak.

Aipaturiko birpopulaketen helburua, ehiza eta beste faktoreen eraginez desagertu edo gutxituriko espezie faunistikoak harrapatzeko eta tiroz hiltzeko ala gehiago edukitzea izan da. Hau da, euren interes kolektiboak gainditzea, eta ez guztiona den Naturaren zaintza.

Are gehiago, oinarri ekologiko huts batetik begirituta, hain kaliturik dauden gure ekosistemetan kanpotik ekartzen diren espeziekin birpopulaketeak, sekulako hondamen ekologikoa sortzen du, horrela gure fauna autoctonoko dituen berezko ezaugarri genetikoko (faktore ekologiko, meteorologiko, geologiko eta botanikoetara egokitu dira milioika urtetan zehar, informazio hau euren geneatan dagozarik) disolbatu eta galdu egiten direlako. Adibidez, Jugoslaviako unxi autoctonoak eta Euskal Herrikoak oso ezaugarri desberdinak dituzte.

Gainera, elikadura-kateko goialdean dagoen basa-fauna harrapatzailea hiltzeak, ehiza artifizialki mantentzea ekartzen du, gizaki armatu hauen beharra sortzen bait da bestelako animalien harrapatzaileak ordezkatzeko.

Gaur egun Euskal Herrian dibertsitate bio-

logikoa oso murriztu da, hau bertako fauna eskasean somatu diaitekelarik. Arrazoiak zenbait izan dira: etengabeo ehiza eta arrantzak, pestizidak, monokultiboko, animalia harrapatzaileak hiltzea, politika forestal salagarria, nekazal ohituren aldaketa..., deskontrola.


Gure ustetan, ehizaren funtzioa datorten 21. mende horretan populazio faunistikoen kontrolatzea datza, hau da, plaga edo nekazal kalte ugari dauden kasuetan soilik: berez gaur egun dauden ehiza-baimenen gehiengoa soberan dago gure naturagonean egoera kontutan hartzen bada. Ondorioz, gaur egin ehiztaria eta ekologista izatea ezin da inolaz ere alderatu!

EGUZKI

Erreterria (Gipuzkoa)

GAIA JARRITA

1994



Larogeitamalaua heldu da noizbaiten, nahi genduke saminen zulotikan irten. Gabon Zaharrez parranda hasi ta ez eten, nahiz urtea resakaz hasiko dan aurtlen, ia urtea guzia ez duen irauten.

MADDALEN LUJANBIO

Egunkaria

Batzorde Patekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90



OKJDK IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluoko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDA

Kontseilari Ordezkarie: INAKI URIA

Gerentes: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: MARTXELO OTAMENDI

Zuzendariordeak: LUZIEN ETXEZAHARRETA

Publikizatzaia: MARI JOSE SARASA

Espainiako Publikizatzaia: PUBLICITAS

Captain Haya 12a 28020 Madrid ☎ 91 555 11 01 / Faxa: 91 556 29 29

HELBIDEAK

Erredizioz eta Tailerak: ANTZA S.A. Industriadena 01-02 Pabilhok / 20160 Luande: Oria ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egokita sozialia, Publikatzaia eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-T / 20010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Arabe: San Antonio, 20-1.erlek. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratze Monastegia, 45-13.esk. / (Iruñen dorian) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 7879 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Zabalburu Enparantza, 2-1.erlek. / 48003 Bilbo / ☎ 410 40 46 / Faxa: 410 37 15

Lapurdia / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Parnocai 14, 1 / 503 Posta Kutsailua, / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11